

**Gure Lagunak**MST  
Brasilgo Lurrik  
Gabekoak**Iparra galdu gabe**Piedad Córdoba,  
senatari kolonbiarra**Argitalpenak**Son cosas chiquitas.  
20 años de Mundubat**Aurpegia emanez**Adeeb Saleem Hadweh,  
Palestinako kooperantea

## Estatu-kolpe gehiagorik EZ!



Irantzu Ortega

Mundubat-eko Ordezkaritzako koordinatzailea Hondurasen  
2009ko abuztuaren 5a

Herri-galdeketaekin ametsen oheratu eta estatu-kolpearekin esnatu ginen. Ia-ia sinestezina da oraindik ere, XXI. mendean, pertsona gutxi batzuen interesek lehentasuna edukitzea herrien kaltetan. Ekainaren 28an, Hondurasko herriak herri-galdeketa ez-loteslea egiteko eskubidea zeukan, "4. hautestontzia" eduki nahi zuen jakiteko, Errepublikako Konstituzioa aldatzeko eta, horrela, gizarteko eragile guztiei euren lekua emateko, gutxiengo oligarkiaren kaltetan eta herrialdean egoera txarragoan dauden gizarte-mailen mesedetan. Egoera hori aurtengo azaroko hauteskunde orokortan antzemango zen. Orain, ordea, egoera desberdina da erabat.

Bada hilabete Hondurasko herria *de facto* erregimenaren esku dagoela. Erregimen horrek, hain zuzen ere, zilegizko presiden-

tea kendu zion, bahitu eta erbesteratu egin zuen. Roberto Micheletti bere burua izendatu zuen presidente, Manuel Zelayak bidalitako uko-gutun zalantzarria jendaurrean aurkeztu ondoren. *De facto* gobernuaren errepresaliak berehalakoak izan ziren. Adierazpen-askatasuna mugatu egin zen, militarrek kolpistekin bat ez zetozen zenbait komunikabide hartu zituztenean. Setio-egoera ezarri zuten herrialdean, eta berme konstituzionalak kendu zizkieten bertako biztanleei, duela zenbait egunetara arte indarrean egon den isildeia ezartzean; esate baterako, elkartzeko, batzartzeko, manifestaldiak egiteko eta askatasunez mugitzeko eskubidea.

Hori dela-eta, herriak berehala adierazi zuen estatu-kolpearen aurka zegoela. Harrezkero, gizarteko zenbait sektorek egunero egin dituzte manifestaldiak, eta herrialdean gertatutakoa salatzen ari dira.

Azken asteotan, "tentsiopeko barealdia" areagotu da, militarrek eta poliziak biztanle zibilen aurkako errepresioaldi berriak ga-

ratu dituztelako. Giza eskubideak etengabe urratzen ari dira, eta, are txarrago, erabateko zigorgabetasuna dute halakoak egiten jarraitzeko.

Hori guztiori dela-eta, Mundubat-ek estatu-kolpe hori eta *de facto* gobernu hori gaitzesten ditu. Gure elkartasun osoa adierazten diogu Hondurasko herriari, modu goraiagarri eta baketsuan aurre egiten dielako errepresioari eta probokazioei, ordena demokratikoa berriro ezarri dadin. Era berean, gurekin lan egiten duten erakundeen salaketak geure egiten ditugu, eta nazioarteari eskatzen diogu beharrezko bide diplomatiko, politiko eta ekonomiko guztiak erabiltzeko, egoera hau ahalik eta lasterren amaitu dadin.

Zenbait lagun hil dira, beste asko zaurituta daude, ehunka eta ehunka bidegabekeriaz atxilotu dituzte eta ez dakigu zenbat desagertu diren. Besterik gertatu behar ote da herri honen eskariari erantzuteko eta inposatutakoa barik partaidetzakoa den benetako demokrazia ezartzeko?

### Agenda

- Abuztuak 6. (20:30). Donostia. Altxerri taberna.  
"Beste Begietatik" kontu-kontakizuna.
- Abuztuak 1-30. Donostia. Udal Liburutegia.  
Argazki-erakusketa: "Begiradak beste bazterretik"
- Irailak 3-6. Bizkaia. Getxo.  
"Mundubat-en erakustokia Folk Jaialdian"
- Irailak 15-30. Teruel. Andorra.  
Argazki-erakusketa: "Begiradak beste bazterretik"
- Irailak 20 - urriak 4. Gipuzkoa. Hernani.  
Argazki-erakusketa: "Saharak emakume-izena du"
- Urriak 2-3. Vitoria-Gasteiz. Hikateneko.  
"Tailerrak: Giza eskubideen defentsako erronkak eta proposamenak genero-ikuspegitik" Irene López Méndezek eskutik.

### Onespina eta eskerronak

Abenduan, Mundubat Fundazioko Patronatuko zenbait kidek euren kargua utzi zuten: ordura arteko Javier Vitoria presidenteordea eta Rosario del Rey, Begoña Gárros, Karmele Pérez Erregerena eta Nieves Zabala kideak, bai eta Néstor Basterretxea kidea ere. Guzti-guztiak erreferenteak izan dira, GGKE honetan izandako ibilbide luzeagatik, erantzukizun-maila handiagatik eta arduraldiagatik.

Gaur egungo Mundubat-eko patronatuak eta langileek euren ekarpen eskuzabala eta konpromisoa onetsi eta eskerrak eman nahi dizkiete, eragin erabakigarria izan dutelako bi hamarkada bete berri dituen proposamen solidario honetan.



## MST Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimendua

**B**rasilgo MST -Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimendua- diktadura militarren amaieran sortu zen, borroka eta mobilizazioak nagusi zirenean. Hartara, 1984ko urtarrilaren 20tik 22ra, Paranako Estatuko Cascavelen egin zen Lurrik Gabekoen 1. Topaketa Nazionala.

Helburua masa-mugimendu nazionala antolatzea zen, nekazariak luraren, nekazaritza-eraldaketaren eta berdintasunezko zein bidezko gizartearen alde borrokatu zitezten. Azken batean, txirotasunari eta gizarte-desberdintasunari aurre egitea zen xedea, horren ondorioz landan luraren jabetza guztia "latifundioetan" metatzen zelako.

25 urteko mobilizazio, borroka eta erresistentzien ondoren, MST 24 estatutan dago antolatuta, 350.000 familia finkatuta daude eta 140.000 familia kanpalekuetan bizi dira. Hona hemen, besteak beste, bere lorpen nagusiak:

- Hezkuntza: 38.000 ikasle baino gehiago eta, gutxi gorabehera, 1.500 irakasle dituzte hezkuntza berrian proiektuan inplikaturik;

gazte zein helduen hezkuntzarako 269 talde; irakaskuntza tekniko eta profesionalerako 24 talde; goi-mailako 26 ikastaro Lurraren Pedagogian, Letretan, Agronomian, Nekazaritzako Zuzenbidean, Historian, Artean eta Hezkuntzan; hiru espezializazio-ikastaro Ekonomia Politikoan eta Agroekologian; eta graduatu ondoko ikastaro bat Amerika Latinoko Ikaskuntzetan.

- Ekoizpena: elkarteen, ekoizpen-kooperatiben, nekazaritzako industria txikien eta kreditu-kooperatiben sorrera sustatzen du, baliabideak eta eragin egokiko lanpostuak sortzen dituztelako 700etik gora udalerritan.

- Generoa: emakumeek mugimenduko instantzia guztietan parte hartzen dute, eta genero-sektorea sendotu da, prozesu guztietan genero-ikuspegia zeharkakotzeko. Haurtzaindegiak sortzean, partaidetza sustatu da ekoizpen zein prestakuntzako prozesuetan nahiz mobilizazioetan.

- Giza eskubideak: herri-abokatuen sarea garatu da, lurerrako eskubidea defendatzeko. Eskubideak defen-

datzeko eta sustatzeko ikastaroak egiten dira; esate baterako, Nekazaritzako Zuzenbidea eta Zuzenbideko Eragileen Prestakuntza.

Nekazaritza-eraldaketaren aldeko borroka latifundioko lurren okupazioan baino ez zen oinarritzen lehen. Orain, ordea, konplexuagoa da, enpresa transnaziionalen nagusitasunaren aurka borrokatzea delako helburua. MSTren ustez, landa-ingurunean aldaketak garatzeko (txirotasunari, desberdintasunei eta aberastasun-metaketari aurre egiteko), luraren jabetzan eta ekoizpen-ereduan eman behar dira aldaketak.



## Esperientzia adierazgarriak

### Chiapas, Mexiko. Sexu-osasun eta ugalketaren arloko estrategiaren ezarpena

**M**undubat-ek emakumeentzako osasun-sistemaren eraketa babesten du, eta honelakoxea izan behar da: **unibertsal**a (guztiantzat), **solidario**a (baliabiderik ez dutenak ere hartu behar ditu kontuan), **bateratua** (erkidegoen lanean sustraitu behar da), **kultura artekoa** (mendebaldeko medikuntza eta medikuntza indigena harmonizatu behar ditu), **eraginkorra** (kalitateko zerbitzuak eman behar ditu) eta **egokia** (iraunkorra izan behar da, baliabide pertsonal eta ekonomikoen ikuspegitik).

Chiapasko biztanle indigenen txirotasun eta bazterketa mailak herrialdeko handienak direnez, bertako heriotza-tasa handi-handia da prebenitu eta sendatu daitezkeen gaixotasunetan. Urteen joan-etorrian, osasuna oro har jorratu da, emakumeen gaixotasunak modu berezian kontuan hartu gabe. Hona hemen arazo nagusiak: amen heriotza, desnutrizioarekin lo-



tutako erdiketa-aniztasuna; sexu-transmisioko infekzioak...

Hori dela-eta, Mundubat-ek Chiapasko bertako erakundeei lagutzen die Chiapasko oihanean osasun-sistema autonomiaduna eratzen. Lau ardatz nagusi daude: sexu-osasun eta ugalketaren arloko sustatzaileen eta emaginen prestakuntza; erkidegoen testuingurura egokitutako azpiegitura egokiaren eraikuntza eta ekipamendua; osasunerako hezkuntzaren sustapena hezkuntza-materialen bidez, sexu eta ugalketa arloko eskubideen jakintza eta erabilera sustatzeko asmoz; eta sexu-osasun eta ugalketako atentzio-klinikaren koordinazioa eta kudeaketa.

Urteotan, emaitza handiak lortu dira laguntza-sunaren ondorioz. 2008ko martxoaren 8an, bi solairuko klinika ireki zen oihanean: lehenengo solairuan, emakumeak atenditu eta farmazia-zerbitzua eskaintzen dute. Bigarrenean, ordea, sustatzaileak eta emaginak prestatzen dituzte, eta gero eta gehiago daude. Era berean, emakumeentzako aterpetxea eraikitzen ari dira, prestakuntza-tailerrak egiten dituztenak eta klinika kudeatzen dutenak bertan geratu daitezten.

Sareen garaia

## Mugimendu solidarioaren presioaren ondorioz, Veoliak bertan behera utzi behar izan du Jerusalemgo tren-proiektua

Boycott, Divestment and Sanctions (BDS) Palestinarekiko mugimendu solidarioa da erakundeen erantzukizunaren eta betearazpen etikoaren arloan, eta lehen garaipen irmoa lortu du, Veoliak (garraio-konpainia erraldoiak) bertan behera utzi duelako Jerusalemgo tranbiaren proiektua. Legez kanpoko proiektua zen, eta Jerusalemgo hiriko lurralde okupatu palestinarrean eraikitako kolonia israeldarrak uztartzea zuen helburu.

BDSren kanpainaren ondorioz, Veoliak 7.000 inguru milioi dolar galdu ditu kontratuetan, nazioarteko legea larriki urratzen duen proiektuan.

Garaipen handi hori lortzeko, elkartasun-talde frantsesek eta, batez ere, AFPSek etengabe, zorrotz eta gogor lan egin behar izan dute urteetan zehar. Izan ere, AFPSek eragin erabakigarria izan zuen, Veoliak Bordeleko ekoizpen-kontratu handi-handia galdu zuenean. Era berean, ekintzaile holandarrek ere izan zuten zeresana, lehen arrakasta lortu zutelako, Holandako banku bat Veoliari babesik ez emateko konbentzitu zutenean. Bestetik, Suediako Palestinarekiko Justizia, Bake eta Elkartasun taldeen ondorioz, Veoliak 4.500 milioi dolarreko kontratua galdu du, Stockholmeko metroaren esleipenean. Horrez gain, Britainia Handiko elkartasun-taldeen eraginez, Veoliak irabazi-asmodun kontratua galdu zuen West Midlandsen. Azkenik, BDS Batzorde Palestinarrak Veoliaren eta Alstom talde energetiko frantsesaren aurkako kanpaina zuzendu zuen.

Veoliaren eta Alstomen aurkako kanpaina era ofizialean jarri zen abian Bilboko Ekimenean, hau da, Mundubat-eko kidea den Mewando sare solidarioak 2008ko azaroan sustatu zuen bileran.



## Iparra galdu gabe

### Mundubat-ek Piedad Córdoba senatari kolonbiarrari lagundu zion estatu espainolean zehar egindako biran

Piedad Córdoba senatari kolonbiarraren bira ekainaren 22tik 27ra garatu zen, Kolonbiako Zuzenbide Humanitarioaren Ezarpenari buruzko Mintegian proposatutako helburuen jarraipena egiteko asmoz. Izan ere, martxoan, Mundubat-ek eta beste erakunde batzuek garatu zuten Kolonbiaren aldeko Justizia Plataformaren esparruan. Hain zuzen ere, gu koalizio horretako partaideak gara, honako hauekin batera: IEPALA, CEAR, CCOOko Bake eta Elkartasuna, Duintasuna eta Bakea eta Madrileko Romero Lantaldea.

Piedad Córdoba oso zeresan handia eduki berri du bitartekaritza, FARC talde gerlariak bahitutako pertsonak askatzeko. 2007ko abuztuan, Córdoba FARCen eta Álvaro Uribe presidentearen gobernuaren arteko hitzarmen humanitarioan inplikatu zen. Horren arabera, 6 lagun askatu zituzten aldebakartasunez.

Ondoren, zenbait herrialdetako intelektualak bildu zituen, FARCeke kupularekin gutun bidezko elkarriketari hasiera emateko. Gutun-trukeari esker, FARCeke Córdobaari eta Bakearen aldeko Kolonbiarrei erantzun zien, eta aldebakartasunez erabaki zuten hiru polizia, soldadu bat eta euren boterepean zeuden azken bi bahitu politikoak.

Bete-bete lan egin du bakearen alde eta Kolonbiako gatazka arma-

tuaren irtenbide baketsua nazioartean nabarmentzeko. Hori dela-eta, Adolfo Pérez Esquivel Bakearen Nobel Sariak jendaurrean eta era formalean proposatu zuen Osloko Nobel Sariaren Batzordean senataria 2009ko Bakearen Nobel Sariarako hautagaia izatea. Senatariak sari hori merezi ez zuela adierazi zuen.

### Ikustaldi nekagarria

Piedad Córdoba Euskadi, Mallorca, Sevilla eta Madrilén egon zen. Bertan, Espainiako gobernuak goi-karguekin batzartu zen Moncloan, Gobernuako Presidentetzako Nazioarteko Politikarako Zuzendaritza barne. Horrez gain, Atzerri eta Lankidetzako Ministerioan ere batzartu zen Iberoamerikarako idazkariarekin eta arlo horretako zuzendariarekin. Modu berean, Diputatuen Kongresuan bildu zen atzerri-batzordeko kideekin, Cayo Lara Izquierda Unidako (IUko) koordinatzaile nagusiarekin eta PSOEko zuzendaritzako kideekin. Autonomia-erkidego guztietan, bertako gobernu eta parlamentuekin bildu zen, eta giza eskubideen zein etorkinen elkarteetan, juristen eta nazioarteko elkartasun-sareen berariazko babesa erdietsi zuen.

Senatariak zenbait hitzaldi publiko eskaini zituen, eta jende ugari bertaratu zen. Era berean, komunikabideek ere estaldura nabaria eman zioten senatariaren bisitari.



## Aurpegia emanez

Adeeb Saleem Hadweh, *Palestinako kooperantea.*



### “Okupazioak txarto sentiarazten zaitu, gizakia ez bazina bezala sentiarazten zaitu”

**Noiz eta zer testuingurutan sartu zinen Mundubat-en?**

Lagun batek, Fayez Saqqak, 1999an esan zidan Espainiako GGKE batekin lan egiteko aukera zegoela. Urte horretako irailan, haren anaiaekin topo egin nuen ezkontza batean, eta proiektua aurretiaz babesten zuela esan zidan. Ondoren, bilatu egin ninduen eta GGKEko talde bat proiektua abian jartzeko asmoz etorri zela esan zidan. Leire Garastacho zegoen, eta berarekin batzartu nintzen. Harrezkero, Mundubat-en hasi nintzen lanean.

**Zein izan da Mundubat-ek urteotan Palestinan egindako lanaren bilakaera?**

Aztarna utzi dugu Palestinan, zenbait sektoretan egon garrelako lanean: azpiegiturak, hezkuntza eta arlo batzuen finkapena.

Azpiegiturak ikusgai daude, hortxe daudelako: Beit Sahourko ospitalea, Qalqiliako auzo-etxea... Era berean, lan handia egin dugu osasunaren arloan. Hezkuntzari dagokionez, emaitzak nolakoak diren ikusi arte itxaron beharko dugu, baina inolako zalantzarik gabe, kontzientzia-aldaketa nabaritu da epe luzean.

Mundubat-ek harri-koxkorra baino ez du jartzen, goragoko maila politikoko irtenbideak bilatu behar direlako. Dena dela, proiektuen aurrerakuntzak eta emaitzak antzeman daitezke tokian-tokian, eta jendea eskatzen eta lan egiten ari da.

Oso garrantzitsua da Palestinan lan egitea, biztanle zibilei lan-aukerak emateko, familiek diru-sarrerak edukitzeko, euren kooperatibak garatzeko, euren erkidegoen eskubideak defendatzeko eta elkartuta jarraitzeko.

**Nola bizi duzu Israelen okupazioa arlo pertsonalean zein profesionalean?**

Alde horretatik, arazoak egon dira beti. Zailena garraiatzea eta mugitzea da, hainbat arazo sortzen direlako check pointetan (Israelgo armadaren kontrol-guneetan). Esate baterako, 2003an, Belenen, igarobide guztiak itxita zeudenez, oinez joan behar nintzen proiektuaren jarraipena egiten.

Okupazioak txarto sentiarazten zaitu, gizakia ez bazina bezala sentiarazten zaitu. Ez dago okupazioa ahazterik... Begien aurrean duzu une oro. Esate baterako, beste leku batzuetan baino garestiagoa da edozein produktu erostea. Israeldarrek sortutako gerra-gastuak haiek ezarritako zergen bidez ordaintzen ditugu, eta gero eta gehiago igotzen dituzte gerra horien ondorioz. Horrela, bada, kaxa bat aspirina erosi nahi baduzu, 3 euro ordaindu behar dituzu, Grezian euro erdi balio duenean!

Okupazioa txarrena da, ez dago okupazio onik. Etengabe hitz egin nezake honi buruz. Mundu gehienaren antzera, bizimodu arrunta noiz edukiko zain nago.

**Etorkizunari begira, nolako aurreikuspenak dituzu zeure herrialderako?**

Ez dago argi. Zenbait herrialde arabiarrek estatu palestinarren sorrera sustatu nahi zuten, eta 1948ko lurraldeetara mugatu nahi zuten Israel. Gero, Bush "ergela" etorri zen, eta okupazioa 2005ean amaituko zela esan zuen. Azkenean, ez da ezer gertatu. Une honetan, badirudi Obamarekin zerbait aldatzen ari dela eta kokalekuak geldiarazi nahi dituztela. Era berean, Europar Batasuna mugitzen hasi da AEBek ere zerbait egin dutela ikustean. Israelgo gobernuarekiko presioa handiagoa da.

Batetik, positiboa da, baina bestetik, "aurretik egin dezake jauzi" esaera zahar arabiar batek dioen moduan. Israeliek kanpoko presioa sumatzen badu, paperak konpondu eta kanporantz eraman dezake gerra, Iranerantz, esaterako. Plana eginda dago, eta, hasiera batean, AEBen onspena dute. Palestinaren alde zerbait eginez gero, AEBek gerra hori egiteko baimena emango lioke Israeli... ..Gazan bezala.

## Argitalpenak

### Son cosas chiquitas. 20 años de Mundubat

Liburu hau Mundubat-en 20 urteen oroigarria da. 20 urtez, hain zuzen ere, gauzatxoak egin ditugu, gauza handiak eratzeko. GGKEren bilakaeran zehar egindako ibilbide xehea da, sortzaileetako bat eta gaur egungo presidentea den Iñaki Markiegiren lekukotasunaren bitartez. Era berean, gure bidelagun atseginak izan diren lagun handiek ere badute zer esanik: Eugenia Cáceres, Enrique Corral, Graciela Colunga, Salvador Orellana, Guillermo Zelaya, Elio Perón, Jesús Alfonso Flórez López, Salek Baba eta Juani Rishmawi. Azken batean, argitalpenak fede ematen du Mundubat-ek konpromisoa hartu duela, elkartasuna beste mundu baten aldeko borroka orokorraren sustatzailea izan dadin. Hartara, ekonomia hobea, demokrazia hobea, generoen arteko berdintasuneko harreman sozialak eta justizia soziala eduki ahal izango ditugu.



Eskatzeko: [emintegi@mundubat.org](mailto:emintegi@mundubat.org) edo (+34) 944162325 telefonoa.

### Crisis alimentaria Elikaduraren krisia

CD honetan, Nekazarien Bideak 2008ko abenduan Euskadin EHNE nekazarien sindikatuaren eta Mundubat-en eskutik antolatutako topaketetan egindako elkarriketak agertzen dira. Hona hemen elkarriketatuak: Nekazarien Bideko koordinatzailea, Nekazarien Bideko Giza Eskubideen Batzordeko kideak eta NBEren elikadurarako errelatore bereziaren laguntzailea. Horrez gain, Gueñeseko Baserri Eskolako kide bati ere egin zaio elkarriketa, iparraldean nekazari-tzaren egoera nolakoa den jakiteko. Horren osagarri, PDF formatuan daude ikusgai nekazarien egoerari buruzko bost berri-paper eta nekazarien eskubideei buruzko dossier bat.



**Bat egin!  
Izan bazkide**

Mundubat GGKE  
Sombrerería, 2 3. / 48005 BILBO

(+34) 944 162 325

[mundubat@mundubat.org](mailto:mundubat@mundubat.org)

[www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)